



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko abenduaren 13ean

26 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- “Turismo sektorea sustatzea” aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Kontuen Ganbarak egindako fiskalizazio txostena, Nafarroako Parlamentuko 1999ko ekainaren 13ko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen arauzkotasunari buruzkoa (17. or.).

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Turismo sektorea sustatzea” aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko irailaren 27an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako “Turismo sektorea sustatzea” aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio txostena agitara dadila agintzea.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

“Turismo sektorea sustatzea” aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.)
- II. Helburua, norainokoa eta mugak (3. or.)
- III. Iritzia eta ondorioen zein gomendioen laburpena (4. or.)
- IV. Aurrekontuaren 1998ko betetze-maila (5. or.)
- V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (6. or.)
- I. **eranskina.** Programako adierazleak eta xedapen arauemaileak (14. or.)
- II. **eranskina.** Gastuen eta dirusarreraren bilakaera 1995etik 1998ra (15. or.)

I. SARRERA

Kontuen Ganbarak 1999rako zeukan fiskalizazio-programaren barnean sartu zen “Turismo sektorea sustatzea” izeneko aurrekontu-programaren kudeaketa fiskalizatzea. Aurrekontu-programa hori Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentukoa da eta 1998ari dagokio.

Programari buruzko dokumentuetan esaten denez, “Nafarroa, une honetan, turismoaz den bezainbatean, garapen egonkorreko erkidegoa da, eta hainbat jarduketa planteatu nahi ditu baliabide horiei eustearren. Bestalde, Iruña, duen harrera gaitasunari esker, destino oso atsegina da batzar zein kongresuak egiteko. Bilatzen dena da Nafarroa turismoko destino gisa merkaturatzen duen jarduketa bat taiutzea administrazioak. Saia-tu egin behar dugu ondokoak hobetzen:

• Eskaintzaren kalitatea hobetzea, merkaturatze lehiazko gai izan dadin.

• Staff egonkorrik ez izatea, hark eginen baliatutze ekimen pribatuaren aholkularitza lanak eta proiektuak kudeatzeko planteamentuak.

• Antolakuntza zein laguntzei buruzko arauak berrikustea, kalitatea hobetzeko asmoz.

• Eraginkortasuna eta, batez ere, ekonomia bilatzea Departamentuaren jardunean eta sektorearekiko nahiz udaldekiko harremanetan, elkarte eta partzuergoen bitartez.

• Argibide eta merkaturatze zerbitzuari babesa emanen dion azpiegitura eratzeko premia.”

Horren kariatz, ondoko helburu eta jarduketak adierazten dira:

Horren kariatz, ondoko helburu eta jarduketak adierazten dira:

“Baliabideak (naturakoak, ondarekoak eta kulturalak) egokitzea, horiek mantentzea ahalbidetzen duen kudeaketa baten bidez. Ekimen pribatua sortzea, beren ingurunean sustraituko PYMEsek eratua, haren jarduerak (nagusiak nahiz osagarriak) bizi eta garatzeko aukera emanen baitie. Zerbitzu berriak planteatzea eta daudenak (errepideak, osasun etxeak, kiroldegia, banketxeak etab.) hobetzea, arestiko bi puntuak garatzeko beharrezkoa den azpiegitura garatzearren, hala Nafarroako eskualdeetan nola hiriburuan (Kongresuen jauregia, Auditorioa...). Agenteen prestakuntza hobezina lortzea, bai Departamentuko taldekoena bai ekimen pribatu nola, batez ere, publikoena, euren erantzukizunari aurre egin eta hori gauzatzeko gai izan daitezen.

• Azpiegituri buruzko plana: laguntzak emateko arauak berrikustea (irizpide berriak kalitateari

begira). Proiektuen aholkularitza tekniko eta ekonomikoaren jarduna diseinatzea. Udalen, partzuergoen eta abarren proiektu publikoen koordinazioa, batik bat azpiegitura komunen arloan (kudeaketa diseinuak bilatzea).

- Antolaketa plana. Arau teknikoak berrikustea. Zehapenei buruzko legea abian jartzea. Turismo kontsumitzailearen babesa. Partzuergoen jarduketa eremua aztertzea.

- Tresnei buruzko plana. Argitalpenei buruzko plana. Eskaintzari buruzko azterlanak. Eskaerari buruzko azterlanak. Baliabideei buruzko plana - Argazkien artxiboa eta abar. Datu-basea.

- Prestakuntza eta komunikazio plana: barnekoa. Lantaldearena berarena, kanpokoa. Inplikaturiko gainontzeko agenteena, departamentu artekoa (inplikaturiko beste departamentu batzuekin -Kultura, Ingurugiroa, Herrilanak etab.-). Turismo Idazkaritzarekin eta beste erkidego batzuekin. Europako Batasunarekin, zuzentarauak egokitzearen eta jarduketak eta ekimenak baliatzearen.

- Merkaturatze plana. Produktu egokia diseinatzea. Bulego sarea saltoki sare bihurtzea.

- Marketing-merkaturatze plana. Feriei buruzko plana. Argitalpenei buruzko plana. Baliabideei buruzko plana.”

Egin beharreko jarduketa inbertsioen finantzioari, informazio jarduketei, lanbide prestakuntzari eta turismo jarduketan administrazioari lotuta aipatzen dute programako adierazleek.

I. eranskinean, txostenaren bukaeran baitoa, adierazleak eta programa honi aplikatzekoa zaion araudia azaltzen dira.

Orobat adierazi behar da badela turismo kudeaketari buruzko plan estrategiko bat, modu ofizialean onetsia ez badago ere.

Programak 1.126 milioiko gastu aurrekontua du, eta 196 milioiko dirusarrera aurrekontua.

Turismo Zerbitzuak kudeatzen du programa. 1998an, 14 langile finko izan ditu, eta 34 aldi baterako.

II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

II.1. HELBURUA

Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearearekin bat, Kontuen Ganbarak 1999rako bere jarduketan sartu du Nafarroako Aurrekontu Orokorreko “Turismo sektorea sustatzea” aurrekontu-programaren fiskalizazioa.

Lan horrek ondoko helburuak ditu:

- Programaren aurrekontua eta bere epigrafe ekonomikoak betetzerakoan, egotz dakizkiokeen gastu eta dirusarrera guztiak jaso diren egiaztatu; horrela, betetze horren arrazoizotasunari buruzko iritzia eman ahal izanen da.

- Programatutako jarduerari aplikagarri zaion legezotasunaren hatsapena bete den egiaztatu.

- Programaren ardura duen administrazio-unitatearen barne kontrol sistemak ebaluatu; eta, behar izanez gero, hori hobetzeko egoki irizten diren gomendioak eman.

- Programaren proiektuek lortutako eraginkortasun eta ekonomia maila aztertu.

II.2. NORAINOKOA

Aurreko helburuak kontuan hartuta, lanak arre-ta jarri du bai aplikatutako administrazio-prozedu-retan, bai programaren 1998ko aurrekontuan; halaber, antolaketa, kontabilitatea eta barne kontrola ere aztertu eta ebaluatu ditu lanak, eta baita ere, eskura izan den informazioaren neurrian, programa betetzerakoan lortu diren eraginkortasun eta ekonomia mailak.

Metodologiari dagokionez, Kontuen Ganbarak aplikatu ohi dituen programak aplikatu dira; programa horiek Ganbararen auditoretza gidetan agertzen dira eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako Sektore Publikoko Auditoretza Hatsapen eta Arauen barrenean aurrera eramaten.

Txostenak bost atal ditu. Sarreraren ondotik datoz helburuak, norainokoa eta mugak, iritzia, ondorioak eta gomendioak.

Horiekin batera, bi eranskin azaltzen dira. Horietan, zehaztu egiten dira, lehendabizikoan, programako adierazleak eta programari aplikatzekoa zaion legeria, eta, bigarrenean, aurrekontuaren betetze-maila 1995 eta 1998 bitartean.

II.3. MUGAK

Muga orokorra hauxe izan da: lan honen helburuetako bat lortzeko zailtasuna, hau da, programa betetzerakoan lortu den eraginkortasun eta ekonomia mailak aztertzeko zailtasuna, helburuak eta adierazleak, programaren aurkezpenean, ez baitaude behar bezala zehaztuta eta zenbatekotuta; horrenbestez, azterketa hau Zerbitzuan dagoen dokumentazioari eta bildu diren hainbat urtetako txostenetakoari jarraituz egin da.

Zelaiko lana otsailean eta apirilean egin zen. Lan taldea auditoretza teknikari bi eta auditore bat izan dira; horiek, gainera, denbora guztian, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan dute.

Eskertu egin nahi dugu Turismo Zerbitzuko langileek lan hau egiteko eskaintako laguntza.

III. IRITZIA ETA ONDORIOEN ETA GOMENDIOEN LABURPENA

Txosteneko II. epigrafean adierazitako helbueri jarraituz, hauxe da gure iritzia-eragurra:

III.1. AURREKONTU-BETETZEA

Programako dirusarreraren eta gastuen likidazioek, 1998ko ekitaldiari dagozkionak, nahiko ondo agertzen dute izandako jarduerara. Halere, behar baino 41 milioi gutxiago hartu dira langileen gastutzat. Alde hori gertatu da, hain zuzen ere, aldi baterako langileen ordainsariak Departamentuaren lerro orokorretan bildu direlako.

Bestalde, Europako Batasuneko dirusarrerak batera zenbatzen dira Gobernu osoan, kutzako irizpideari jarraiki.

III.2. LEGEZKOTASUNA

Oro har, programako aurrekontuaren jarduerak legezkotasun printzipioa betetzen du.

III.3. ANTOLAMENDUA ETA BARNE KONTROLA

Oro har, barne kontrolerako aplikatu diren prozedurek bermatu egiten dute programaren baliabideak behar bezala kontrolatu direla. Hala eta guztiz ere, onetsitako aurrekontua eta benetako beharrezan ez datoz bat, eta horren erruz aurrekontu-transferentziak egin behar dira turismo sektorea sustatzeko programaren kudeaketari aurre egiteko.

Orobat, aipagarria da ekitaldiaren azken hilabeteetan betetzen den aurrekontuaren bolumena.

Txostenaren V. epigrafean hainbat gomendio ematen dira "Turismo sektorea sustatzea" programaren barne kontrola eta antolakuntza hobetzea-

rraren. Gomendioak langileen alorrari, gastu arrunt eta inbertsioei eta transferentziei buruzkoak dira, eta ondokoetan laburbiltzen:

- *Eginen diren gastuei benetan doitutako aurrekontua egitea, ahalik eta aurrekontu-aldake-tarik gutxien egiteko.*

- *Urteko jarduna planifikatzea, urtean zehar banatu eta ekitaldiko azken hilabeteetan ez meta-tzeko.*

- *Langileen gastu guztiak egozte programari.*

- *Lanak egiteko epeak finkatzea, agindutako egin beharrekoei arabera.*

- *Nafarroako Gobernuak beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa areagotzea baldin eta jarduketak berean batek baino gehiagok parte hartzen badu.*

III.4. EFIKAZIA ETA EKONOMIA

Txosten honetako III. epigrafean adierazitako mugak berak ez digu balioesten uzten programaren kudeaketaren eraginkortasuna eta ekonomia.

Hala eta guztiz ere, Zerbitzuak egindako txostenetan eta ditugun datuetan ikusten da hazi egin direla turismo eskaintza eta hartaz baliatzea, eta ahalegin bat egin dela landa-turismoa delakoa sustatzeko.

Orobat igartzen da beharrezkoa dela epe luzerako helburuak finkatzea Nafarroako turismo industriarako, eta urteko programak horietan oinarrituta egin.

Nabarmendu egin behar da, halaber, ekimen pribatuak ezezik administrazioaren eta Nafarroako Gobernuak zenbait departamentuaren jardunak ere eragina dutela turismoarengan, eta, horrenbestez, Turismo Zerbitzuak lehentasuna eman beharko lioke turismoarekin zerikusia duten entitate guztien jarduketak koordinatzeari.

Gure gomendioa hauxe da: beste jarduerak ekonomiko bat baliatzen hartzea turismoa, eta, Nafarroan turismo-jarduerari hasiera emateko aldia bukatu denez, hirugarren sektoreko jarduerak hori bideratu eta garatzeko moduko plan bat egitea.

IV. AURREKONTUAREN 1998KO BETETZE-MAILA

Ondokoa da aurrekontuko programaren 1998ko betetze-maila:

Gastua	(pezetatan)		
Kontzeptua	Hasierakoa	Bateratua	Betetakoa
Funtzionamenduko ordainsari finkoak, guztira	23.953.000	5.968.298	5.684.602
Langile kontratudunen ordainsariak	20.813.000	39.005.411	36.510.298
Langile kontratudunen ordainsariak	18.214.000	0	0
Gizarte Segurantza	24.065.000	19.362.724	17.119.855
Funtzionarioen ordainsari finkoak, guztira	44.086.000	43.546.180	43.546.180
Lan-kontratuko langileen ordainsariak	3.833.000	2.400.799	1.207.234
Aparteko orduak	109.000	109.000	0
Ordainsariak, jaiegunetako lanarengatik	1.626.000	4.126.000	3.835.841
1. kapitulua, guztira	136.699.000	114.518.412	107.904.010
Lokalak alokatzea	1.500.000	1.720.000	1.702.416
Azpiegituren funtzionamendu gastuak	14.000.000	24.500.000	24.499.493
Publizitatea eta propaganda	30.000.000	40.435.000	37.596.010
Goi mailako ostalaritzako ikastaroak	9.000.000	12.000.000	10.032.981
Turismo sustapeneko gastuak	15.000.000	39.300.000	34.345.388
Ferietara joatea	45.000.000	61.900.000	58.537.045
Lan eta azterlan teknikoak	6.000.000	12.200.000	11.996.474
Dietak eta lokomozioa	9.500.000	15.500.000	14.767.880
Argitalpenak	45.000.000	115.300.000	101.660.444
2. kapitulua, guztira	175.000.000	322.855.000	295.138.131
Turismo-paketeak sustatzea	4.000.000	16.425.000	11.389.297
Parte-hartzeagatiko transferentziak	6.000.000	8.050.000	8.035.340
Elkarteak kudeatzeko transferentziak			
Partzuergoak kudeatzeko transferentziak	40.000.000	40.000.000	40.000.000
4. kapitulua, guztira	75.000.000	111.325.000	102.238.737
Inbertsioak turismo materialetan	8.000.000	11.600.000	11.474.770
Kongresuen Jauregiko proiektua eta azterlanak	103.000.000	53.250.000	38.240.920
Argibide bulegoen planeko inbertsioak	18.000.000	16.400.000	11.107.250
Azpiegituren planeko inbertsioak	5.000.000	0	0
Bulegoen planeko inbertsioak	2.000.000	0	0
Azpiegituren planeko inbertsioak	5.000.000	11.600.000	11.187.910
6. kapitulua, guztira	141.000.000	92.850.000	72.010.850
Transferentziak partzuergoetara	32.000.000	32.000.000	28.308.151
Inbertsioetarako transferentziak	4.000.000	15.509.635	10.117.851
Inbertsioetarako transferentziak	42.000.000	25.758.972	16.985.985
Transferentziak ekimen pribatuei	80.000.000	93.122.927	92.469.561
Transferentziak ekimen pribatuei	440.000.000	284.347.073	272.806.553
7. kapitulua, guztira	598.000.000	450.738.607	420.688.101
Guztira	1.125.699.000	1.092.287.019	997.979.829

Dirusarrerak	(pezetatan)		
Konzeptua	Hasierakoa	Bateratua	Betetakoa
Bestelako dirusarrerak	500.000	500.000	23.703.711
Interesen ordainketak itzultzea	1.000.000	1.000.000	3.638.060
Aurrerakinatarako interesak itzultzea	17.000.000	17.000.000	17.407.771
Zehapenetako dirusarrerak	500.000	500.000	620.000
3. kapitulua, guztira	19.000.000	19.000.000	45.369.542
Emakidak turismo establezimenduei	8.000.000	8.000.000	9.834.192
5. kapitulua, guztira	8.000.000	8.000.000	9.834.192
FSEko dirusarrerak ostalaritza ikastaroetarako	4.000.000	4.000.000	523.663
FEDERko dirusarrerak inbertsioak finantzatzeko	1.000.000	1.000.000	0
FEDERko dirusarrerak inbertsioak finantzatzeko	130.000.000	130.000.000	163.288.515
FEDERko dirusarrerak inbertsioak finantzatzeko	4.000.000	4.000.000	0
FEDERko dirusarrerak inbertsioak finantzatzeko	8.000.000	8.000.000	0
7. kapitulua, guztira	147.000.000	147.000.000	163.812.178
Toki entitateentzako aurrerakinak itzultzea	22.000.000	22.000.000	25.252.127
8. kapitulua, guztira	22.000.000	22.000.000	25.252.127
Guztira	196.000.000	196.000.000	244.268.039

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. OROKORRAK

“Turismo sektorea sustatzea” programaren gastuen aurrekontuak 998 milioiko betetze-maila du (hasierakoa 1.126 milioikoa zen, eta, bateratua, aldiz, 1.092 milioikoa), hau da, hasierako aurrekontuaren % 89 eta bateratuaren % 91.

Hasierako aurrekontuarekiko eta bateratuarekiko betetze-mailak ondokoak dira kapituluz kapitulu:

	Betetzea, %	
	Hasierako aurrekontutik	Bateratutako aurrekontutik
Langileak	79	94
Erosketak	169	91
Transferentzia arruntak	136	92
Inbertsioak	51	78
Kapital transferentziak	70	93
Guztira	89	91

Datu horiek agerian uzten dituzte hasierako aurrekontuan aldaketa handiak gertatu direla, gastu arruntak asko igo eta kapitalekoak asko jaitsi direlako.

Aldea dago, beraz, programako aurrekontuaren eta benetako beharizanen artean; izan ere,

turismoa sustatzeko jarduketak areagotu ahala igoen dira gastu arruntak, eta, hortaz, eragiketa arruntan kapitulura transferitzen dira kapital eragiketako kredituak.

Inbertsioen betetze-maila apala Kongresuen Jauregia eraikitzen hasteko atzerapenari zor zaio.

Bi afera horiengatik gertatzen da batez ere halako betetze-maila 1998an.

Ondokoa izan da azken urteotako betetze-mailaren bilakaera kapituluz kapitulu:

	Portzentajearen aldaketa	
	1994-1998	1998-1997
Langileak	128	85
Erosketak	190	115
Transferentzia arruntak	16	8
Inbertsioak	80	83
Kapital transferentziak	62	- 4
Guztira	86	30

1998ko betetze-maila 998 milioikoa da, hots, 1994an (536 milioi) baino % 86 gehiago eta 1997an (768) baino % 30 gehiago.

Nabarmenezko modukoa da, orobat, urteko azken egunetako gastua. Hala, azaroa bitarte aurrekontuko 2. kapituluaren % 65 bete da, 4. kapituluaren % 52, 6. kapituluko % 35 eta 7. kapituluko % 38.

Kapitulu horietako gerakinek 286 milioi egiten dute, hau da, programaren betetze-maila osoaren % 29.

Gure gomendioak hauexek dira:

- *Eginen diren gastuei benetan doitutako aurrekontua egitea, ahalik eta aurrekontu-aldake-tarik gutxien egiteko.*
- *Urteko jarduna planifikatzea, urtean zehar banatu eta ekitaldiko azken hilabeteen ez meta-tzeko.*

Dirusarreraren betetze-maila 244 milioioikoa da (hasierako aurrekontua eta bateratua 196 milioioikoa dira). Igoera gertatu da, batez ere, handitu egin direlako Federretik datozen dirusarrerak eta bestelako dirusarrerak, milioi erdiko aurrekontua izan arren, 24 milioioikoa izan direnak. Ondoko dirusarrerak biltzen ditu nagusiki kontusail horrek: landa-turismoko gidako espazioetakoak, Kongre-

suen Jauregiko ideien lehiaketakoak, Nafarroako parfumearen salmentakoak eta dirulaguntzen itzulketakoak.


V.2. LANGILEAK

Hasierako aurrekontua 137 milioioikoa eta bateratua 115 milioioikoa izaki, betetze-maila 108 milioioikoa da, hau da, 1997ko ekitaldian baino % 85 gehiago.

Gastu erreala 148 milioi pezetakoa da, hots, kontabilizatutakoak baino 41 gehiago. Eta hori horrela da aldi baterako langileen gastuak zerbitzuko lerro orokorretan sartu direlako, eta ez programakoetan.

Orobat ikus daiteke ez dela irizpide bera erabiltzen ordainketa jakin batzuk egotean. Jakina, horrek ez dio zenbateko osoari eragiten.

Ondokoa da organigrama:



Plantilla 25 lanpostukoa da, eta horietako 10 hutsik daude.

48 lagunek egin dute lan 1998an: 14 funtzionario, 16 lan-kontratadun urte osorako kontratuarekin, 18 lan-kontratadun aldi baterako kontratuarekin eta legelari bat, departamentuko idazkaritza teknikora esleitua eta Turismo Zerbitzuaren aholkularitza juridikoaren ardura duena.

Turismoak gorabeherak izaten ditu urtaroa zein den, eta horrek mugatu egiten ditu zerbitzu horretako langileen beharrezan: horregatik hain

zuzen ere egin behar izaten dira aldi baterako kontratuak.

Gure gomendioa hauxe da: langileen gastu guztiak egotea programari.

V.3. ZERBITZUAK ETA ONDASUNAK EROSTEA

Hasierako aurrekontua 175 milioioikoa eta bateratua 323 milioioikoa izaki, betetze-maila 295 milioioikoa da, hau da, 1997ko ekitaldian baino % 115 gehiago.

Kapitulu honetako gastua Turismo Zerbitzuak berak sektorea sustatzearren egiten duen jarduna finantzatzeari dagokio batik bat. Horrela, kapitulu-ko gastuen hiru laurden baino gehiago erabiltzen da liburuskak argitaratu, ferietara joan, publizitatea zein propaganda egin eta turismoa sustatzeko.

Nabarmentzeko modukoa da aurrekontu-aldaketen zenbatekoa (148 milioi), hasierako aurrekontuaren % 85 egiten baitu. 6. kapitulua (inbertsioak) eta 7.a (kapital-transferentziak) jaisteari zor zaio batez ere zenbateko hori.

Argitalpenen kudeaketa Lehendakaritza eta Barne Departamentuarekin batera egiten da, departamentu horrek baitarama argitalpenen aholkularitza teknikoko kontratuen kudeaketa.

Egindako azteketak erakusten du ezarritako prozedura betetzen dela oro har. Halere, mandatuak urte bukaeran metatzen direnez, atzerape-
nak izaten dira entregetan eta epeen kontrola eragozten da, zeren, Lehendakaritza eta Barne Departamentuaren ardura izan arren, Turismokoa-ri egiten baitzaizkio entregak.

Erakusleku bat ezartzeko 2 milioi pezetako espediente batean, hiru eskaintza eskatzen dira, baina lizitaziora jo duten enpresek nolabaiteko lotura dute beraien artean, eta horrek lehiakidetasun eza dakar noski.

Gure gomendioa hauxe da:

- *Editore-jarduna planifikatzea, azken hilabete-an metatu gabe lanak urtean zehar banatzearen. Horrek lagundu egingen luke entrega epeak kontrolatzen.*

- *Benetako lehiakidetasuna sustatzea beti, elkarren arteko loturak dituzten enpresen lizitazioa ekiditeko.*

V.4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

Hasierako aurrekontua 75 milioikoa eta batera-tua 111 milioikoa izaki, betetze-maila 192 milioi-koa da, hau da, 1997ko ekitaldian baino % 7 gehiago.

Ondokoak dira batez ere diruz lagundutako kontzeptuak: udal mailako sustapen jarduketak (11 milioi), elkarte-
en kudeaketa (43 milioi) eta partzuergoen kudeaketa (40 milioi).

Oro har, turismoarekin zerikusia duten erakundeek mota guztietako jarduketak egiten dituzte eta ez da erraza izaten turismo-jardunarekin lotura duten ala ez zehaztea.

Gainera, askotariko gastuak sortzen direnez, ezin dira guztiak diruz lagundu.

Aztertutakoaren arabera, diruz lagundutako entitateek gastuak justifikatzen dituzten agiriak aurkezten dituzte, eta zerbitzuak horiek aztertzen ditu. Egin beharreko txostenak egin ondotik ematen dira dirulaguntzak.

Egindako analisisien ondorioz, badira gure ustez gehiago zehaztu eta definitu beharreko alderdiak. Beraz, gure gomendioa da:

- *Dirulaguntzak emateko jarraituko diren irizpideak eta lehentasunak jartzea deialdian.*

- *Eskabide eredu normalizatua ezartzea. Eredu horretan azaldu egin beharko litzateke, hala behar izanez gero, bestelako laguntzak ere badirela.*

- *Diruz lagundutako gastuen justifikazioa nola egin behar den zehaztea, zeren hori egiteko hainbat modu erabiltzen dela ikusten baita. Horrela, erabaki egin beharko da, partzuergoen kasuan batik bat, BEZa diruz lagundu behar den ala ez.*

- *Partzuergoen taitutze juridikoa modu orokor batean definitzea komeni da, horren gaineko irakurketa bat baino gehiago egiten baita.*

- *Diruz lagundutako jardueren eta Departamentuko artean gerta daitezkeen bikoiztasunak aztertzea, hala nola giden edizioa, ferietara joatea...*

- *Diruz lagundu beharreko gastuak justifikatzeko betebeharrak ezartzea, partzuergoetako zein elkarteetako bazkidek berek egiten badituzte.*

V.5. INBERTSIOAK

Hasierako aurrekontua 141 milioikoa eta batera-tua 93 milioikoa izaki, betetze-maila 72 milioikoa da, hau da, 1997ko ekitaldian baino % 83 gehiago.

Kapitulu honetan biltzen diren gastuak ondokoak dira: publizitate liburusken diseinuak sortutakoak, zerbitzuko inbertsio berekiak (ordenagailuak), Urbasako kanpina konpontzeko lanak, Kongresuen Jauregia eta Iruñeko informazio bulegoaren kokagune berria.

Kapitulu honen betetze-maila da apalena, hasierako aurrekontuaren % 51 eta bateratuaren % 78koa baita. Betetze-maila hori zor zaio Iruñeko informazio bulegoa (1999ko ekainean inauguratua) eta Kongresuen Jauregia eraikitzeko atzerapenari.

Liburuskak diseinatzeko lanetan, inprimatze-lanen jarraipena egiteari buruzkoak ere sartu dira. Horregatik, inprimatutakoan bukatzen dira kontratuak, ez diseinua ematen denean. Gertatzen den

atzerapena kontuan hartuta (gogora bedi V.3 epigrafean esandakoa), ez da erraza izaten pleguen lanak bukatzeko epeak lanak bukatzeko benetako epeetara egokitzea.

Kongresuen Jauregiaren kasuan, egindako gastuek ondokoak biltzen dituzte: ideien lehiaketa, sariak, iragarkiak eta epaimahikoen gastuak. Guztira 38 milioi dira.

Material informatiko ia guztia, Lehendakaritza eta Barne Departamentuak erosten du, 1998ko Aurrekontuei buruzko Legearekin bat etorriz.

Ezin izan ditugu aztertu entregatzeko albaranak, definitu gabe baitzegoen non jarri hainbat produktu.

Urbasako kanpineko obren kasuan, lizitazio prezioan esleitu ziren, hau da, 19,2 miliotan, aurkeztutako eskaintzak zenbateko hori gainditzen baitzuen. Azken likidazioa % 9,9 garestitu da.

Deierriko Udalak hala eskatu badu ere, espedientean ez da ageri Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baimena, obrak egiteko udalaren lizentzia eman baino lehenagokoa.

Gure gomendioa hauxe da:

- Lanak egiteko epeak agindutako zereginen arabera finkatzea.
- Erosten diren ondasunak erosteko beharria -na eta horiek norako diren ondo baino hobeto definitzea erosi aitzin.
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baimena behar duten inbertsioak egin aitzin koordinatzea eta arauak ezarritako baldintza guztiak betetzea.

V.6. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK

Hasierako aurrekontua 598 milioikoa eta bateratua 451 milioikoa izaki, betetze-maila 421 milioikoa da, hau da, 1997ko ekitaldian baino % 4 gutxiago.

Kapital-transferentziak azpiegiturretako inbertsioak diruz laguntzeko erabiltzen dira. Inbertsioak ondokoek egiten dituzte:

- Partzuergoak, ekonomi zein turismo garapena sustatzeko udalen elkarreak: 28 milioi pezeta.
- Toki entitateak: 27 milioi pezeta.
- Entitate pribatuak: 365 milioi pezeta.

Inbertsio horien zati bat Europako Batasunak finantzatzeko du FEDER programaren bidez. 1998an 163 milioi heldu dira bide horretatik.

1997tik aurrera, espedienteen pilaketa zela-eta, bertan behera gelditu ziren ekimen pribatua-
rentzako laguntzak. Orduetik aurrera eginiko lana pilatutako espedienteak ebaztea izan da.

Hori egin eta gero, PYMESentzako beste deialdi bat egin da, baina etenda jarraitzen dute landetxeentzako laguntzek.

Laguntza horiek Ekonomi eta Ogasun Departamentuko kontu-ikuskaritza atalak ere aztertu ditu.

Egindako analisiak erakusten du arauak ezarritako prozedurak oro har bete direla laguntza horiek kudeatzerakoan. Halere, badira gehiago zehaztu beharreko alderdiak, eta, hortaz, gure gomendioa hauxe da:

- *Nafarroako Gobernuko beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa areagotzea, landetxe eta era berean ohiko etxebizitza direnei emandako laguntzetan.*

- *Gastu jakin batzuk diruz laguntzekoak diren ala ez definitzea.*

- *Aurkeztu beharreko agiriak zein diren zehaztea; izan ere, zenbaitetan gehiegizkoa izan daiteke, eta ez dira beti aurkezten arauetan ezarritako agiriak.*

- *Epeak ezartzea, horrela ekidin egiten baita lana egun batzuetan pilatzea, pilaketak kudeaketa eta kontrola eragozten ditu eta.*

Nabarmendu egin nahi dugu orobat barne auditoretzako atalaren txostenean emandako gomendioen puxka handi bat Turismo Zerbitzuak aintzat hartuak zituela, eta horiek zuzentzeko hartu beharreko neurriak ere hartuak zituela.

V.7. DIRUSARRERAK

Hasierako aurrekontua eta bateratua 196 milioikoa izaki, betetze-maila 244 milioikoa da, hau da, 1997ko ekitaldian baino % 2 gutxiago.

Ondokoak dira kontzepturik behinenak: Europako Batasuneko dirusarrerak -163 milioi, hainbat entitatearen inbertsioak kofinantzatze-ko-, laguntzen itzulketak -46 milioi- eta bestelako dirusarrerak -24 milioi.

Europako Batasuneko dirusarrerak kutxa irizpideari jarraiki erregistratzen dira. Horri buruz, Europako Batasuneko transferentzien esparru orokorraren azterketari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko martxoaren 5eko 15. NPAOn argitaratua, ikus daiteke.

Bestelako dirusarreretan ondoko kontzeptuak nabarmentzen dira:

Kontzeptua	Milioi pezetatan
Landa turismoko gidako espazioak	8
Dirulaguntzak itzultzea	7
Kongresuen Jauregiko ideia lehiaketa	4
Nafarroako perfumearen salmenta	3
Bestelakoak	2
Guztira	24

V.8. ERAGINKORTASUNA ETA EKONOMIA

Turismo-kudeaketak berezko ezaugarriak ditu; izan ere, turismo-jardunarengan zenbait departamentuk eta administrazioak dute eragina. Horrela, turismoaren garapenerako aztertu egin behar da komunikazio sistemen egoera (Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua), natur ingurunearena (Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua), kultur jarduketena (Hezkuntza eta Kultura Departamentua) eta abar. Turismoa, gainera, herri jakin batzuetan ematen da, eta hortaz, beharrezkoa da toki entitateen parte-hartzea (udalak, kontzejuak eta mankomunitateak).

Instituzio mailan egin beharreko lan horrekin batera, beharrezkoa da turismo-industria sortuko duen ekimen pribatua. Horrek guztiak turismo-industria garatzeko plan bat eta hori abian jartzeko adostasun politikoa eskatzen ditu noski.

Horrela, bada, logikoa da turismoko arduradunen lana izatea inplikatu guztien arteko koordinazioa, Nafarroan turismoa sustatzea eta, batez ere, Foru Komunitatean ezarri nahi den turismo eredu diseinatzea eta eskualdeka banatzea.

Mugen epigrafean adierazi bezala, helburuak eta adierazleak behar bezala zehaztuta eta zenbaketotuta ez daudenez, ezin ditugu programaren kudeaketaren eraginkortasuna eta ekonomia aztertu. Halere, adierazi egin behar da izan bade-la plan estrategiko bat, modu ofizialean onetsia ez

badago ere, laneko barne agiritzat har daitekeena.

Agiri horretan bi alderdi azpimarratzen dira, turismoaren egoera Nafarroan aztertzeko funtsezkoak direnak gure ustez:

“a) Barne indarrak:

1. Eskarmentua.

2. Kudeaketa diseinatzeke une egokian azaltzea (tartean denbora gehiegi utzi gabe)

3. Eskaintza asko igo da.

b) Kanpo mehatxuak:

1. Sustatutako itxaropenen aurrean zuzentarau ezak sortutako nahas-mahasa.

2. Eragileek (publiko eta pribatuek) Departamentuaren aitzinean galdutako sinesgarritasuna eta dezepzioa.

3. Egintza argi eta eragingarriak eskatzen dituen nahas-mahasa.

4. Gehiegizko itxaropenak, eta horrek estuasuna dakar departamentuaren jardunaren aurrean. Denen ahaleginak bateratzearen, lankidetzaren, transmititu beharko litzateke.”

Egindako jarduketak ere biltzen ditu agiri horrek.

Turismo Zerbitzuak urteko jardunari buruzko oroit-idazkia egiten du.

Ondoren, urteko oroit-idazkietan bildutako hainbat argibide eta Zerbitzuan eskuartearen datu estatistikoak ematen ditugu, turismoak azken urteotan Nafarroan izandako bilkaera aztertzeko asmoz.

V.8.1. Turismo plazen bilakaera

Egonlekuak								
Mota	1992		1994		1997		1998	
	Establ.	Plazak	Establ.	Plazak	Establ.	Plazak	Establ.	Plazak
Hotelak	44	4.302	45	4.397	54	5.073	54	5.005
Hostalak	62	2.004	70	2.296	83	2.705	85	2.571
Apopilo-etxeak	23	381	19	299	23	372	23	353
Ostatuak	177	1.572	166	1.449	112	1.245	111	1.266
Kanpinak	14	5.600	15	6.082	21	8.436	22	8.836
Apartamentuak	1	52	1	52	3	489	3	452
Guztira	321	13.911	316	14.575	296	18.320	298	18.483

Landa-etxeak	1992		1994		1997		1998	
	Establ.	Plazak	Establ.	Plazak	Establ.	Plazak	Establ.	Plazak
Gelaks	115	618	127	855	146	1.011	151	1.083
Alokairukoak	25	108	87	516	186	1.136	216	1.329
Guztira	140	726	214	1.371	332	2.147	367	2.412

Datu horiek ondo adierazten dute Foru Komunitateko egonlekuen hazkundea. Hazkunderik handiena kanpinetan eta landa-etxeetan gertatu da.

V.8.2. Espedienteak, inbertsioak eta laguntzak (milioi pezetatan)

	1992		1994		1997		1998	
	Hotela	Landa-etxea	Hotela	Landa-etxea	Hotela	Landa-etxea	Hotela	Landa-etxea
Espedienteak	25	24	45	12	54	27	70	60
Inbertsioak *	920	57	1.397	60	3.029	116	2.633	331
Maileguak	577	-	738	-	-	-	-	-
Hobariak	38	-	75	-	125	-	76	-
Dirulaguntzak	15	14	68	18	221	31	224	72

* Hotel, hostel, kanpin zein jatetxeetako dirulaguntzak

Lauki horretan ikusten da zein izan den sektoreko inbertsio-jarduna eta zeintzuk emandako laguntzak. Laguntzetan ikus daitekeenez, utzi egin zaio maileguak emateari.

Ikus daitekeenez, landa-etxeetan egindako inbertsioak ez dira, kantitatearen aldetik, bestela-

ko establezimenduetan eginikoak bezain garrantzitsuak.

V.8.3. Argibide eskariak turismo bulegoetan

Ondoko laukian ikus daitezke turismo bulegoetako eginiko argibide eskariak, hilabetez hilabete.

	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Guztira
1992	1.411	2.026	2.100	17.627	6.180	9.837	30.924	49.598	15.869	2.680	1.970	2.020	142.242
1993	1.748	2.112	2.887	25.483	9.468	14.227	44.456	71.052	30.321	13.993	7.414	8.302	231.463
1994	2.241	2.972	6.083	30.732	18.529	20.684	51.467	93.352	28.572	14.340	7.313	7.759	284.044
1995	3.454	5.585	6.923	31.837	19.344	23.026	53.610	88.181	21.792	14.210	0	0	267.962
1996	4.629	5.708	10.288	34.593	23.116	24.398	48.544	78.680	23.800	15.603	11.809	0	281.168
1997	4.741	8.040	30.243	19.134	28.569	25.096	52.886	86.015	30.739	14.686	7.039	8.930	316.118
1998	6.038	7.567	12.860	25.832	26.091	23.198	54.545	98.911	33.529	22.764	11.856	10.760	333.951
Guztira	24.262	34.010	71.384	185.238	131.297	140.466	336.432	565.789	184.622	98.276	47.401	37.771	1.856.948

Datuok erakusten duten legez, gero eta informazio gehiago eskatzen da turismo bulegoetan, eta uztailean eta abuztuan eskatzen da informazio gehien. Gero datoz iraila eta ekaina, bai eta apirila ere.

Datuok garbi erakusten dute Nafarroan uda sasoiaren eta aste santuan metatzen dela turismoa.

V.8.4. Erreserba Zentralaren bidez egindako toki-erreserbak

Ondoko laukian ikus daiteke Erreserba Zentralaren bidez eginiko erreserben bilkaera, hilabetez hilabete.

	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Guztira
1993	26	15	60	101	32	43	110	334	98	146	42	88	1095
1994	62	63	112	129	34	49	195	673	125	89	69	130	1730
1995	56	45	51	272	84	52	240	642	144	127	91	158	1962
1996	48	83	70	146	112	162	203	505	185	199	126	110	1949
1997	118	134	149	218	159	274	317	379	135	227	195	145	2450
1998	136	130	192	148	143	198	232	583	272	166	127	77	2404
Guztira	446	470	634	1.014	564	778	1.297	3.116	959	954	650	708	11.590

Datuok erakusten dute turismo bulegoetako informazio eskarietako joera bera gertatzen dela.

V.8.5. Hoteletako okupazioa, hilabetez hilabete

Ondoko laukian ikus daiteke zein izan den hoteletako okupazio mailaren portzentajea, hilabetez hilabete:

	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Guztira
1992	32,20	35,30	39,10	42,10	40,70	42,30	51,20	57,80	47,90	41,80	36,80	27,70	40,80
1993	26,10	28,90	40,90	43,40	44,80	50,60	59,80	69,20	52,40	43,40	35,10	27,50	43,50
1994	23,70	26,70	32,30	36,60	39,10	41,10	55,50	66,00	54,90	38,60	29,30	25,00	39,10
1995	16,60	21,50	21,90	35,70	32,40	33,50	41,80	51,20	36,60	25,50	23,60	19,40	24,00
1996	18,40	21,20	22,90	30,80	26,80	29,20	36,30	38,10	30,80	25,10	23,40	18,90	26,80
1997	17,34	20,71	26,93	21,37	25,07	24,94	36,61	45,92	30,32	23,92	21,70	21,11	26,30
1998	19,20	22,00	34,20	34,20	37,50	34,10	45,60	53,00	45,10	36,60	30,80	21,60	31,60

Okupazioa jaitsi egin zen 1995era bitarte, eta hori hala izan da, neurri batean, gero eta plaza gehiago eskaini izan delako. Hortik aurrera, igo egin da.

Oro har, okupazio maila nahiko apala da,

zeren, 1998an esate baterako, okupaziorik altueneko hilabetean % 53koa izan baitzen.

V.8.6. Landa-etxeen okupazioa

Ondoko laukian, azken urteotan landa-etxeetan izandako okupazioa azaltzen da:

	Alokairua		Gelak	
	Plazak	Okupazioa	Plazak	Okupazioa
1995	474	32,70	855	22,30
1996	748	27,70	918	17,40
1997	1.136	27,00	1.011	15,40
1998	1.329	27,00	1.083	17,00

Ikus daitekeenez, alokairuko etxeetako okupazioa polito igo da. Nahiz eta okupazio portzentajeak behera egin, askoz ere plaza gehiago dago. Gelen kasuan, ia-ia bere horretan mantentzen da, zeren, okupazio mailaren jaitsiera konpentsatu

egiten da plazen eskaintzaren igoerarekin.

V.8.7. Bestelako jarduketak

• Ondoko prestakuntza-jarduketak egin dira 1998an:

Jarduketa	Orduak	Parte-hartzaileak
Prestatzaileen prestakuntza	60	15
Bezeroari atenditzea	8	120
Turismo guneak (harrerako langileak)	12	140
Berriemaileen prestakuntza		37
Etxeen kudeatzaileentzako baliabide turistikoak		25
Bisitari japoniarra	4,5	70
Turismo guneak	36	50
Gidarientzako frantsesa	30	12
Turismo produktua diseinatu eta merkaturatzeko plana	24	
Donejakue bidea, turismo-berriemaileentzat	16	12
Erriberako turismo plangintza, toki administrazioentzat	9	30
Enpresaren irudia eta komunikazioa	14	

• Turismoarekin lotutako 29 feriatan parte hartu da; 1997ko 13ak baino nahiko gehiago beraz.

• 1998an jasotako erreklamazioak 170 izan dira. Hona:

Ondokoei buruzko erreklamazioak	Erreklamazioak
Hotelak, hostalak, apopilo-etxeak	40
Tabernak, jatetxeak, kafetegiak	60
Bidai agentziak	22
Landa-etxeak	14
Kanpinak	22
Bestelakoak	12
Guztira	170

Erreklamazioak zertan diren azaltzen da ondoren:

	Kopurua
Jarduketak artxibaturik	67
Beste erakunde batzuetara igorriarik	43
Betse autonomia batzuetara igorriarik	16
Tramitean	4
Irekirik	16
Ikuskaritzaren egiteko zain	17
Preskribitzeagatik artxibaturik	7
Guztira	170

• Turismo bulegoetako datuen arabera, turismoaren etorburu dira, Foru Komunitateaz gain, Euskal Autonomi Erkidegoa, Madril, Katalunia eta Valentzia.

Egindako analisi horren guztiaren ondorio gisa esan daiteke turismoarekiko interesa handitu dela industria berri gisa Nafarroan azken hamarkadan. Nafarroako Gobernuak hasiera batez landa-turismo bideratutako turismo ekimenak sustatu ditu, bai eta horietan parte hartu ere.

Hasierako etapa hori une honetan bukatutzat eman daitekeela uste dugu; beharrezkoa da, aldiz, egin beharreko azterlanak egin eta gero, Nafarroako turismo industria zein irizpideri jarraituz bideratu nahi den zehaztea. Azken finean, epe luzerako helburuak planteatu behar dira, eta horietan oinarritu urteko programak, zeinak helburu eta adierazle zuzenak aurkeztu behar dituzten.

Lan hau egiteko ardura izan duen Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**I. ERANSKINA. PROGRAMAKO ADIERAZ-
LEAK ETA XEDAPEN ARAUEMAILEAK****ADIERAZLEAK**

a) Hobariak jaso dituzten inbertsioak

Hotel, kanpin eta jatetxeetan: 45

Landa-etxeetan: 15

b) Informazioa eta zabalkundea

Atenditutako argibide eskariak: 290.000

Nafarroako mapa-gida editatzea: 80.000

Berriro editatu beharreko orri tolestuak:
300.000

Zerbitzuen liburuskak: 15.000

Zerbitzuen liburuskaren separatak: 25.000

Landa-turismoko liburuskak: 80.000

Editatu beharreko posterrak: 10.000

Eskualdeari buruzko liburuskak: 400.000

Eskaintza-liburuskak: 50.000

15 feriatara joatea

Gastronomia-liburuskak: 1.000

Diptikoak: 70.000

Diptikoak Iruñeko planoarekin: 80.000

Monasterioei buruzko liburuskak: 1.000

Sanferminei buruzko liburuskak: 2.000

Pirinioei buruzko liburuskak: 3.000

Donejakue bideari buruzko liburuskak: 1.000

c) Lanbide prestakuntza

Turismo-lanbideak perfektzionatzeko ikastaro-
ak finantzatzea: 6Sektoreko profesionalak prestatzeko ikastaro-
ak antolatzea: 2

d) Turismo jarduketan administrazioa

Erreklamazioak: 150

Tramitaturiko baimenak: 30

**APLIKATU BEHARREKO XEDAPEN ARAUE-
MAILEAK**

- Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa (44.13 artikulua, Nafarroak eskumen osoa du turismoa sustatu eta antolatzeko).

- 1121/1985 Errege Dekretua, ekainaren 19koa, Estatuaren turismo alorreko zerbitzuak

Nafarroako Foru Komunitateari traspasatzeari buruzkoa.

- 143/1985 Foru Dekretua, uztailaren 17koa, transferitutako zerbitzuak Turismo Zerbitzuari esleitzen dizkiona.

- 174/1988 Foru Dekretua, ekainaren 1ekoa, eta 67/1989 Foru Dekretua, martxoaren 9koa, Turismoko enpresa txiki eta ertainen errentamendu finantzarioko eragiketen korrituentzako dirulaguntzak arautzen dituztenak.

- 283/1992 Foru Dekretua, irailaren 7koa, turismoaren arloko laguntzei buruzkoa.

- 85/1994 Foru Dekretua, apirilaren 11koa, irailaren 7ko 283/1992 Foru Dekretua, turismoaren arloko laguntzei buruzkoa, hein batean aldatzen duena.

- 106/1993 Foru Dekretua, martxoaren 22koa landa-etxeak egokitu eta konpontzeko laguntzak arautzen dituena.

- 865/1980 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, turismoko ikasketa espezializatuen antolakuntza arautzen duena.

- 1972ko abuztuaren 11ko Agindua, Turismoko enpresetako zuzendarien estatutua onesten duena.

- 231/1965 Dekretua, urtarrilaren 14koa, Turismoko enpresa eta jarduera pribatuak arautzeko estatutua onesten duena.

- 2482/1974 Dekretua, abuztuaren 9koa, turismo eskaintzak antolatzeko neurriei buruzkoa.

- 48/1963 Legea, uztailaren 8koa, turismo arloko eskumenei buruzkoa.

- 3787/1970 Dekretua, abenduaren 19koa, turismo-establezimenduetako azpiegituren gutxieneko baldintzei buruzkoa.

- 1978ko irailaren 15eko Ministro Agindua, turismo-alojamenduetako erreserben eta prezioen araubideari buruzko 1979ko urriaren 4ko Ministro Aginduaren bidez aldatua.

- 1634/1983 Errege Dekretua, ekainaren 15ekoa, hotelak sailkatzeko arauak ezartzen dituena.

- 2545/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, turismoko kanpalekuak sortzeari buruzkoa.

- 141/1988 Foru Dekretua, maiatzaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitatean Bidai Agentzien Erregelamendua onesten duena.

- 1966ko uztailaren 28ko Ministro Agindua, turismoko kanpalekuak turismo-antolakuntza onesten duena.

- 1965eko martxoaren 17ko Ministro Agindua, jatetxeen turismo-antolakuntza onesten duena.

- 1965eko martxoaren 18ko Ministro Agindua, kafetegien turismo-antolakuntza onesten duena.

- 1978ko ekainaren 29ko Ministro Agindua, kafetegi eta jatetxeetako kartak eta menuak aldatzeari buruzkoa.

- 247/1985 Foru Dekretua, abenduaren 27koa.

- 48/1994 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa, Nafarroako hotelen antolakuntzari buruzkoa.

- 76/1995 Foru Dekretua, martxoaren 27koa, turismoko kanpalekuak arautzeari buruzkoa.

- 105/1993 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, landa-etxeetan ostatatzea arauen duena.

53/1995 Foru Dekretua, otsailaren 20koa, landa-etxeetan ostatatzea arauen duen 105/1993 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, hein batean aldatzen duena.

- 125/1995 Foru Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Nafarroan turismoko gidarien lanbidea arautzen duena.

- Nafarroako 1998rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea.

2. ERANSKINA. GASTUEN ETA DIRUSARREREN BILAKAERA, 1995ETIK 1998RA

Gastuak, 1995etik 1998ra						
Kapitulua	1995	1996	1997	1998	% 98/97	% 98/95
1. Langileak	51.566.257	62.646.257	58.252.339	107.904.010	85,24	109,25
2. Gastu arruntak	109.431.271	125.884.420	137.502.300	295.138.131	114,64	169,70
4. Transf. arruntak	78.806.745	73.207.129	94.794.203	102.238.737	7,85	29,73
6. Inbertsioak	10.993.450	29.908.688	39.356.820	72.010.850	82,97	555,03
7. Kapital transf.	412.292.768	272.237.129	437.972.990	420.688.101	-3,95	2,04
Guztira	663.090.491	563.883.623	767.878.652	997.979.829	29,97	50,50

Dirusarrerak, 1995etik 1998ra						
Kapitulua	1995	1996	1997	1998	% 98/97	% 98/95
3. Tasak eta best. dirusar.	69.081.707	33.713.566	33.285.948	45.369.542	36,30	34,33
4. Transf. arruntak	0	0	16.000.000	0	-100	0
5. Ondare bidezko dirusar.	10.749.882	11.346.419	11.806.755	9.834.192	-16,71	8,52
7. Kapital transf.	173.113.236	47.117.685	165.770.907	163.812.178	-1,18	-5,37
8. Finantza-aktiboak	25.588.755	20.419.182	21.509.255	25.252.127	17,40	-1,32
Guztira	278.533.580	112.596.852	248.372.865	244.268.039	-1,65	-12,30

Kontuen Ganbarak egindako fiskalizazio txostena, Nafarroako Parlamentuko 1999ko ekainaren 13ko hauteskunderen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen arauzkotasunari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko urriaren 4an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Nafarroako Parlamentuko 1999ko ekainaren 13ko hauteskunderen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen arauzkotasunari buruzko fiskalizazio-txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1999ko urriaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Parlamentuko 1999ko ekainaren 13ko hauteskunderen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen arauzkotasunari buruzko fiskalizazio txostena, 1998ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua (17. or.)
- II. Norainokoa eta mugak (17. or.)
- III. Ondorioak (18. or.)
 - III.1. Ondorio nagusia (18. or.)
 - III.2. Alderdi politikoek aurkeztutako dokumentazioari buruzko ondorioak (19. or.)
- IV. Hauteskundeetako emaitzak eta dirulaguntzak (19. or.)
 - IV.1. Hauteskundeetako emaitzak (19. or.)
 - IV.2. Hauteskunde dirulaguntzak (20. or.)
- V. Hauteskunde kontabilitatearen arauzkotasuna (21. or.)
 - V.1. Unión del Pueblo Navarro (21. or.)
 - V.2. Partido Socialista de Navarra (22. or.)
 - V.3. Euskal Herritarrok (22. or.)
 - V.4. Izquierda Unida / Ezker Batua (22. or.)
 - V.5. Nafarroako Demokraten Elkargunea (23. or.)
 - V.6. E.A./E.A.J.-P.N.V koalizioa (23. or.)

Eranskina:

Nafarroako Parlamentuko 1999ko hauteskundeetan eserlekurik atera duten alderdi politikoaren gastu-dirusarreraren laburpena (24. or.)

I. HELBURUA

Txosten honen helburua hauxe da: alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle-elkarteek (aurrerantzean, alderdi politikoak), Nafarroako Parlamentua osatzeko 1999ko hauteskundeetan Parlamentuan ordezkariak izatea lortu dutenek, Kontuen Ganbara honi aurkeztu dizkioten hauteskunde-gastu eta dirusarrerak ondo dauden aztertzea, eta, hala bada, "dagokion dirulaguntza kendu edo murriztea", Nafarroako Parlamenturako hauteskunderen buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 47.2 artikulua ezarritakoaren arabera.

II. NORAINOKOA ETA MUGAK

Hona lana noraino heltzen den, indarreko arauteraren arabera: aurkeztu diren hauteskunde-kontabilitateak formaren aldetik arakatu edo aztertzeraino. Beraz, ez da kontabilitateen edo alderdi politikoaren finantzaketaren fiskalizazioa.

Nafarroako Parlamenturako hauteskunderen buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak, eta hark aurrikusten ez duen orotan, Nafarroan ezartzekoa den 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskunde Erregimen Orokorriari buruzkoak, agindutakoa betetzeko, Nafarroako Kontuen Ganbarak bereziki fiskalizatu behar ditu hurrengo aldeak:

- Administrazioaile nagusiek bete dutela Foru Legeko 41. artikulua eta Lege Organikoko 124.ak ezarritako agindua, hau da, fondoak biltzeko banku-kontuak ireki dituztela.
- Aurkeztu den kontabilitatea, indarreko Kontabilitate Plan Orokorreko oinarri nagusiekin bat datorrela, Lege Organikoko 121. artikulua arabera.
- Dirusarrera eta ordainketa oro hauteskunderen kontu korrontearen bidez egin dela (Lege Organikoko 125.1. artikulua)
- Lege Organikoko 126. artikulua hauteskunde-gastuei aurre egiteko fondoak jartzen dituztenei ezartzen dizkien betebeharrak betetzen direla, izan ere "...dirua jartzeko unean erasota utziko dituzte izena, helbidea eta Nortasun Agiri Nazional edo pasaporte zenbakia..." Artikulu horrek zera gaineratzen du: "...konturako kopuruak ematen direnean, eta beste pertsona fisiko zein juridiko baten ordezkariaren izena erasoko da..." eta, dirua ematen dutenak alderdiak baldin

badira, "...ematen diren fondoak nondik datozen erasoko da".

- Lege Organikoko 129. artikulua pertsona fisiko zein juridikoei ezartzen dien muga, alegia, alderdi, federazio, koalizio edo elkarte jakin bati gehienez milioi bat pezeta eman ahal izatea.

- Hauteskunde fondoak emateko debekua baldin eta hurrengo hauetakoren batetik badatoz "...edozein Administrazio edo Korporazio Publiko-tik, Erakunde Autonomo edo Paraestataletik, alor publikoko enpresa eta Estatu, autonomi elkarteak, probintziak edo udalak jabe dituztenetik, eta ekonomia mistoko enpresetatik, orobat, indarreko kontratuaren bitartez, Administrazio Publikoren bati zerbitzuak edo hornidurak eman, edo obrak egiten dizkieten enpresetatik..." (Lege Organikoko 128.1 artikulua). Debeku bera ezarri zaie atzerriko erakunde edo pertsoneri (artikulu bereko 2. lerroaldea).

- Hauteskunde-gastuak, hauteskundeak deitu eta burutu bitartean egin direla egiaztatzea, Lege Organikoko 130. artikulua ezarritakoaren arabera.

- Fiskalizatu diren talde politikoek aitortu dituzten gastuak Lege Organikoko 130. artikulua ezarritakoaren barruan direla egiaztatzea. Hona Lege Organikoko aipatu gastuak nola sailkatzen dituen:

- a) Hauteskundeetako gutunazalak eta papeletak egitea.

- b) Norbere hautagaien aldeko botoa sustatzeko zabalkunde eta publizitate zuzena edo zeharkakoa, erabilitako modua eta bitartekoak edozein direla.

- c) Hauteskunde kanpainako ekintzak burutze-ko lokalak alokatzea.

- d) Hautagaiei zerbitzuak ematen dizkieten aldi-baterako langileentzako ordainketak edo sariak.

- e) Hautagaien, alderdi, elkarte, federazio edo koalizioetako zuzendarien, eta hautagaiaren zerbitzuko langileen garraio bideak eta joan-etorrien gastuak.

- f) Posta eta zigiluak.

- g) Hauteskunde kanpainarako hartu diren kredituen interesak, dagokion dirulaguntza jaso arte sortuak.

- h) Hauteskundeetarako behar diren bulego eta zerbitzuen antolamendu eta jardunerako diren guztiak.

- Aurreko ataletan ezarritakoaren arabera, hauteskunde gastutzat aitortu eta behar bezalako

epean sortu direnak aztertzea, kontabilitate, merkataritza eta zerga-arauek eskatu funtsezko betebeharrak betetzen dituzten dokumentuen bidez egiaztatzea direla ziurtatzeko.

- Kontrolatzea ezein alderdik ez dituela honako muga hauek gainditu:

- Foru Legeko 43.1 artikulua ezarri hauteskunde-gastuen gehienezko muga. Zenbateko hori Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emandako 64/1999 Foru Aginduak eguneratu eta finkatu zuen: 38.325.132 pezetakoa da.

- Hauteskundeetako propaganda, gutunazalak eta papeletak igortzeko egindako gastuaren muga 27 pezetakoa da hautesleko (Hauteskunderi buruzko FLko 44.2 art.).

- 5/85 Lege Organikoko 58.1 artikulua ezarritako muga, egunkarietako eta titularitate pribatuko irratietako publizite-gastuak direla eta.

Beste alde batetik, 1985eko ekainaren 19ko Lege Organikoko 133.3 eta 133.5 artikuluek betebeharrak ezarri dituzte: finantza-erakundeek Kontuen Auzitegiari jakinarazi behar dizkiete elkarte politikoei hauteskunde-gastuetarako ematen dizkieten maileguak, eta orobat ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek ere, zenbatekoa milioi bat pezeta baino handiagoa denean.

Nafarroako Parlamenturako hauteskunderi buruzko Foru Legeak ez du horri buruzko aurrikuspenik. Hala ere, gure ustea da, lehen xedapen gehigarriaren arabera, Foru Legean aurreikusten ez den orotarako Lege Organikora jotzen baitu, Nafarroako Parlamentuko hauteskundetarako betebeharrak bera dagoela.

Egindako lan honek dituen mugak, hurrengo ondorio dira:

- Hauteskundeetako gastuen eta dirusarreraren fiskalizazio edo jarraipen osoa egiteak eskatuko luke alderdi politikoen ekonomi eta finantza jardun guztia aztertzea, eta egungo legeriak Kontuen Auzitegiari ematen dio ahalmen hori.

- Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak eta udal-kontzejuetako hauteskundeak zein Europakoak batera egiteak benetan zaildu du hauteskunde bakoitzari dagozkion gastu eta dirusarrerak mugatzea.

III. ONDORIOAK

III.1. ONDORIO NAGUSIA

Foru Legeko 44. artikulua ezarri dituen hauteskunde-dirulaguntzak direla eta, Kontuen Gan-

bara honek, gorabehera guztiak aztatu ondoren, eta aurreko atalean aipatu diren aldeen erregularitate egiaztatzearen ondorioz, zera erabaki du: Foru Legeko 47.2 artikulua aurreikusitako kenteza edo murriztea ez proposatzea, Nafarroako Parlamentuko 1999ko ekainaren 13ko hauteskundeetan eserlekua atera duen ezein alderdi politiko edo koalizioentzat.

Dena den, hiru hauteskunde-prozesu izan direnez aldi berean, kontuan izan behar da 5/1985 Lege Organikoko 131.2 artikuluan araututako mugak baduela zer esanik.

III.2. ALDERDI POLITIKOEN AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOARI BURUZKO ONDORIOAK

Adierazi nahi dugu hobekuntza orokorra izan dela, bai beharkizun formalak betetzean bai alderdi politikoek dokumentazioa igortzean.

Aurrekoa gorabehera, hona egindako lanetik atera ditugun ondorio nagusiak, alderdi politikoek aurkeztu duten dokumentazioari buruz:

- Lege Organikoak 126.3 artikuluan dioen bezala, "dirua ematen duten alderdiak baldin badira, ematen diren fondoak nondik datozen eraso da". Aurkeztu duten dokumentazioak zera baino ez du esaten, hots, alderdiek hauteskunde-kampainarako eman duten dirua dela, nondik datoren egiaztatu gabe.

- Aurkeztutako agiritako batzuetan ez da behar beste xehetasun ematen, zer erosketa edo zerbitzu den, edo zerbitzua hauteskunde-kampainan nola erabili den; beraz, ezin da zuzenean hauteskunde gastu gisara sailkatu eta ezin da esan zenbatekoa arrazoizkoa denentz. Honako irizpidea izan dugu: gastu baten fakturan hauteskundeak aipatzen badira edo hauteskunde-kampainan egin bada, "hauteskunde gastutzat" jo da, betiere.

- Finantza erakundeek eta enpresa hornitzaileek jarraitu egiten dute bere betebeharra ez burutzen, alegia, Kontuen Ganbara honi ez diote berri zehatzik ematen milioi bat pezeta baino gehiagoko eragiketei buruz.

Gomendioak:

Egungo arauteriaren arabera, Kontuen Ganbara honi dagokion hauteskunde-arautasunaren kontrola hobetzeko asmotan, hona gomendioak:

- *Alderdi politikoek berek emandako fondoak nondik datozen behar bezala justifikatu dadila dokumentazioan.*

- *Behar besteko xehetasunez azal dadila zer den erositako ondasuna edo zerbitzua eta hauteskundeetako ekintza zehatzetan zertako erabili den.*

- *Gastua erakusten duten faktura guztiak izan dezatela alderdiko administratzailearen ikus-onespena.*

- *Kredituak ematen dituzten finantza erakundeek eta zerbitzuek eta ondasunez hornitzen duten enpresek, zenbatekoa milioi bat pezetatik gorakoa izanez gero, bete dezatela Kontuen Ganbarari hori jakinarazi beharra.*

IV. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK ETA DIRULAGUNTZAK.

IV.I. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK.

1999ko ekainaren 13ko hauteskundeak egin ondoren, hona eserlekurik lortu duten talde politikoek eskuratutako botoak eta eserleku kopurua, Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzialaren 1999ko ekainaren 17ko Zenbaketa Aktaren arabera, eta Batzar berak bidali eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (1999ko uztailaren 6ko 1 zk.ko NPAO) argitaraturiko foru parlamentarioen zerrendarekin bat:

Alderdia	Eserlekuak	Botoak	Hautesleak
Unión del Pueblo Navarro (U.P.N.)	22	125.497	
Partido Socialista de Navarra (P.S.N.-P.S.O.E.)	11	61.531	
Euskal Herritarrok (E.H.)	8	47.271	
Izquierda Unida (I.U.)	3	20.879	
Nafarroako Demokraten Elkargunea (C.D.N.)	3	20.821	
E.A./E.A.J.-P.N.V. koalizioa	3	16.512	
	50	292.511	461.729

IV.2. HAUTESKUNDE DIRULAGUNTZAK.

Nafarroako Parlamentuko hauteskundeei buruzko Foru Legeko 44.1 artikulua zera dio: "Nafarroako Foru Komunitateak, hurrengo dirulaguntzak emango dizkie alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteei:

a) Zazpiehun eta berrogeita hamar mila pezeta lortutako eserleku bakoitzeko.

b) Hirurogei pezeta boto bakoitzeko, gutxienez eserleku bat lortu duten hautagai taldeentzat."

Gainera, "hautesleei propaganda, gutunazalak eta papeletak edo hauteskunde-publizitateko beste elementu batzuk zuzenki bidaltzeko ere dirulaguntza izanen da: gutxienez eserleku edo aulki bat atera duen hautagaitzari botoa eman dion hautesle bakoitzeko 15 pezeta, beti ere idazati honek aipatzen duen jardura benetan egin dela egiaztatu bada."

Beste alde batetik, artikuluko bereko 3. atalaren arabera, pezeta iraunkorretan ulertu behar dira aipatu kopuruak, beraz, Ekonomi eta Ogasun kon-

tseilariak, foru aginduz, eguneratuko ditu hauteskundeak deitu eta hurrengo bost egunen barruan.

Bestalde, artikuluko bereko 4. atalak dio egin diren hauteskunde-gastuak baino zenbateko handiagoko dirulaguntzarik ez dela inoiz emanen.

1999ko apirilaren 19ko 64 zenbakiko Foru Aginduak xedatzen du alderdi politikoei eman beharreko dirulaguntzak eguneratu egin behar direla KPlaren % 80,5eko igoera aplikatuz, igoera hori baitagokio 1986-1999 aldiari.

Hauteskunde emaitzak ikusi eta talde politikoek aurkeztutako gastuak aztertu ondoren, hona dirulaguntzen banaketa (pezetatan):

a) Hauteskundeengatiko dirulaguntza.

Kasu batzuetan, teorikoki eman beharko litzaitekeen dirulaguntza baino txikiagoak dira aurkeztutako gastuak. Beraz, egindako gastuen zenbatekoaren parekoa izan behar du dirulaguntzak:

Alderdia	Dirulaguntza teorikoa	Gastu orokorrak	Dagokion dirulaguntza
Unión del Pueblo Navarro (U.P.N.)	43.373.825	33.989.854	33.989.854
Partido Socialista de Navarra (P.S.N.-P.S.O.E.)	21.555.057	21.220.500	21.220.500
Euskal Herritarrok (E.H.)	15.949.449	15.988.912	15.949.449
Izquierda Unida (I.U.)	6.322.446	6.443.269	6.322.446
Nafarroako Demokraten Elkargunea (C.D.N.)	6.316.164	24.431.874	6.316.164
E.A./E.A.J.-P.N.V. koalizioa	5.849.500	7.097.084	5.849.500
Guztira	99.366.441	109.171.493	89.647.913

b) Zuzenean bidalitako publizitatearengatiko dirulaguntza.

451.244 hautesleri. Beraz, ondokoa izanen da dirulaguntza:

Talde politiko guztiek justifikatu dute hauteskunde-publizitatea zuzenean bidali izana; guztira,

Alderdia	Dirulaguntza teorikoa	Buzoiratze gastuak	Dagokion dirulaguntza
Unión del Pueblo Navarro (U.P.N.)	12.217.431	11.872.133	11.872.133
Partido Socialista de Navarra (P.S.N.-P.S.O.E.)	12.217.431	12.189.583	12.189.583
Euskal Herritarrok (E.H.)	12.217.431	7.055.665	7.055.665
Izquierda Unida (I.U.)	12.217.431	12.408.476	12.217.431
Nafarroako Demokraten Elkargunea (C.D.N.)	12.217.431	12.727.753	12.217.431
E.A./E.A.J.-P.N.V. koalizioa	12.217.431	10.423.184	10.423.184
Guztira	73.304.586	66.676.794	65.975.427

c) Guztizko dirulaguntza

Alderdia	Emitzen dirulaguntza	Buzoiratze gastuak	Dagokion dirulaguntza
Unión del Pueblo Navarro (U.P.N.)	33.989.854	11.872.133	45.861.987
Partido Socialista de Navarra (P.S.N.-P.S.O.E.)	21.220.500	12.189.583	33.410.083
Euskal Herritarrok (E.H.)	15.949.449	7.055.665	23.005.114
Izquierda Unida (I.U.)	6.322.446	12.217.431	18.539.877
Nafarroako Demokraten Elkargunea (C.D.N.)	6.316.164	12.217.431	18.533.595
E.A./E.A.J.-P.N.V. koalizioa	5.849.500	10.423.184	16.272.684
Guztira	89.647.913	65.975.427	155.623.340

Dirulaguntzen aurrerakinak

Aipatu Foru Legearen 45.1 artikularen arabera, "Nafarroako Foru Komunitateak, aurreko artikuluan ezarritako dirulaguntzen aurrerakinak emango dizkie Nafarroako Parlamentuko azkeneko hauteskudetan ordezkariak atera zituzten alderdi politiko, federazio edo koalizioei. Aurrerakin horien zenbatekoak ez du gaindituko aipatu hauteskundeetan jasotako dirulaguntzaren ehuneko 30a". Artikulu horren babesean, hona Nafarroako Gobernuak 1999ko maiatzaren 17ko Erabakiaz eman dituen aurrerakinak (pezetatan):

Alderdia	Emandako aurrerakina
Unión del Pueblo Navarro (U.P.N.)	8.739.973
Partido Socialista de Navarra (P.S.N./P.S.O.E.)	5.700.748
Euskal Herritarrok (E.H.)	2.570.669
Izquierda Unida (I.U.)	2.454.273
Nafarroako Demokraten Elkargunea (C.D.N.)	5.151.203
E.A./E.A.J.-P.N.V. koalizioa	1.102.794
Guztira	25.719.660

Aurrerakinok, 45.4 artikularen arabera, "itzuli egingo dira, hauteskundeak egin ondoren, alderdi politiko, federazio edo koalizio bakoitzari azkeneko egokitu zaion dirulaguntzaren kopurua gainditzuten duten heinean".

Emitzak erakusten du aurrerakina jaso duten alderdi politiko guztiek, hauteskunde-emaitzetan gainditu egin dutela jasotako aurrerakina. Alde horretatik, beraz, ez da itzuli beharrik.

Jasotzeko dauden dirulaguntzak

Talde politikoek jaso dituzten aurrerakinak kontuan izanda, hona alderdi edo koalizio politiko bakoitzari eman behar zaion kopurua (pezetatan):

Alderdia	Emateke dagoen dirulaguntza
Unión del Pueblo Navarro (U.P.N.)	37.122.014
Partido Socialista de Navarra (P.S.N./P.S.O.E.)	27.709.335
Euskal Herritarrok (E.H.)	20.434.445
Izquierda Unida (I.U.)	16.085.604
Nafarroako Demokraten Elkargunea (C.D.N.)	13.382.392
E.A./E.A.J.-P.N.V. koalizioa	15.169.890
Guztira	129.903.680

Honako hau kendu behar zaie kopuru horiei: Nafarroako Gobernuak, Foru Legeko 46. artikularen babesean, emandako aurrerakinak, Kontuen Ganbara honi hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu ondoren.

V. HAUTESKUNDE KONTABILITATEAREN ARAUZKOTASUNA.

V.1. «UNION DEL PUEBLO NAVARRO».

a) Gastu eta dirusarreraren laburpena.

Emandako informazioaren arabera, hona hauteskunde-gastu eta -dirusarreraren laburpena (pezetatan):

Dirusarrerak, guztira	45.861.987
Gastuak, guztira	45.861.987
Saldoa	—

b) Hauteskunde dirusarrerak.

Hona hauteskunde dirusarreraren banaketa:

Nafarroako Gobernuaren aurrerakina	8.739.973
U.P.N.k emandakoa	37.121.843
Finantza dirusarrerak	171

Hauteskunde kontu korrontean jaso dira dirusarrerok, udal kanpainari aplikatu zaizkionekin batera.

c) Hauteskunde gastuak.

Hona hauteskunde gastuen banaketa:

Gastu orokorrak	33.989.854
Buzoiratzea	11.872.133

Ez dira gainditu gastu kontzeptuetarako ezarri legezko mugak.

d) Hirugarrenen betebeharrak.

Miloi bat pezeta baino gehiago fakturatu duten enpresek Lege Organikoko 133.5 artikulua ezarritakoa bete dute, eta Kontuen Ganbarari jakinarazi diote.

V.2. «PARTIDO SOCIALISTA DE NAVARRA».

a) Hauteskunde gastu eta dirusarreraren laburpena.

Emandako informazioaren arabera, hona hauteskunde-gastu eta dirusarreraren laburpena (pezetatan):

Dirusarrerak, guztira	26.800.748
Gastuak, guztira	33.410.083
Saldoa	(6.609.335)

Saldoa honela banatzen da:

Bankuko azken izakinak	1.295.053
Kreditu-kontuko izakinak	5.528.651
Ordaintzeke dauden gastuak	(13.433.039)

b) Hauteskunde dirusarrerak.

Hona hauteskunde dirusarreraren banaketa:

Banku-mailegua	21.100.000
Nafarroako Gobernuaren aurrerakina	5.700.748

c) Hauteskunde gastuak.

Hona hauteskunde gastuen banaketa:

Gastu orokorrak	21.220.500
Buzoiratzea	12.189.583

Ez dira gainditu gastu kontzeptuetarako ezarri legezko mugak.

d) Hirugarrenen betebeharrak.

Miloi bat pezeta baino gehiago fakturatu duten enpresek Lege Organikoko 133.5 artikulua ezarritakoa bete dute, eta Kontuen Ganbarari jakinarazi diote.

Beste alde batetik, "Banco Popular Español"ek ez du 133.3 artikulua bete, egindako mailegu-eragiketa Ganbara honi jakinaraztea, alegia.

V.3. EUSKAL HERRITARROK

a) Gastu eta dirusarreraren laburpena.

Emandako informazioaren arabera, hona hauteskunde-gastu eta dirusarreraren laburpena (pezetatan):

Dirusarrerak, guztira	23.170.669
Gastuak, guztira	23.044.577
Saldoa	126.092

Saldoa honela banatzen da:

Bankuko azken izakinak	15.433.796
Ordaintzeke dauden gastuak	(15.307.704)

b) Hauteskunde dirusarrerak.

Hona Hauteskunde dirusarreraren banaketa:

CANen mailegua	20.100.000
Alderdiak emandakoa	500.000
Nafarroako Gobernuaren aurrerakina	2.570.669

c) Hauteskunde gastuak.

Hona hauteskunde gastuen banaketa:

Gastu orokorrak	15.988.912
Buzoiratzea	7.055.665

Ez dira gainditu gastu kontzeptuetarako ezarri legezko mugak.

d) Hirugarrenen betebeharrak.

Mailegua eman duen finantza-entitateak, Nafarroako Aurrezki Kutxak, ez du Ganbara honi maileguaren berri zehatza emateko obligazioa bete. Miloi bat pezeta baino gehiago fakturatu duten zazpi enpresetatik hiruk ere ez diote Kontuen Ganbarari jakinarazi, eta ez dituzte Lege Organikoko 133 artikulua 3 eta 5. puntuak bete. Hona aipatu enpresak:

Enpresa	Kopurua
Gara, SA	1.262.544
Pedro Ventura Díaz	2.250.400
Sobric, SL	1.523.962

IV.4. IZQUIERDA UNIDA / EZKER BATUA.

a) Hauteskunde gastu eta dirusarreraren laburpena.

Emandako informazioaren arabera, hona hauteskunde-gastu eta dirusarreraren laburpena (pezetatan):

Dirusarrerak, guztira	15.460.423
Gastuak, guztira	18.851.745
Saldoa	(3.391.322)

Saldoa honela banatzen da:

Bankuko azken izakinak	3.225.131
Kutxako izakinak	18
Ordaintzeke dauden gastuak	(6.616.471)

b) Hauteskunde dirusarrerak.

Hona Hauteskunde dirusarreraren banaketa:

Banku maileguak	12.000.000
Nafarroako Gobernuaren aurrerakina	2.454.273
Alderdiak emana	986.802
Norbanakoek emana	19.125
Finantza-dirusarrerak	223

c) Hauteskunde gastuak.

Hona hauteskunde gastuen banaketa:

Gastu orokorrak	6.443.269
Buzoiratzea	12.408.476

Ez dira gainditu gastu kontzeptuetarako ezarri legezko mugak.

d) Hirugarrenen betebeharrak.

Miloi bat pezeta baino gehiago hauteskunde-gastu fakturatu duten bi enpresetako batek ez dio Kontuen Ganbarari jakinarazi, Lege Organikoko 133.5 artikulua ezarritakoa bete gabe. Hona enpresa eta jakinarazi gabeko kopurua:

Enpresa	Kopurua
FEYBUR, SL	1.013.516

Bestalde, Euskadiko Kutxak ere ez du 133.3 artikulua bete; alegia, ez dio hitzartutako kreditu-eragiketen berri eman Ganbara honi.

V.5. NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKAR-GUNEA.

a) Gastu eta dirusarreraren laburpena.

Emandako informazioaren arabera, hona hauteskunde-gastu eta dirusarreraren laburpena (pezetatan):

Dirusarrerak, guztira	28.040.872
Gastuak, guztira	37.159.627
Saldoa	(9.118.755)

Saldoa honela banatzen da:

Bankuko azken izakinak	30.805
Ordaindu gabeko gastuak	(9.307.509)
Kobratu gabeko dirusarrerak	157.949

b) Hauteskunde dirusarrerak.

Hona hauteskunde dirusarreraren banaketa:

Alderdiak emana	22.889.186
Nafarroako Gobernuaren aurrerakina	5.151.203
Banku korrituak	483

c) Hauteskunde gastuak.

Hona hauteskunde gastuen banaketa:

Gastu orokorrak	24.431.874
Buzoiratzea	12.727.753

Ez dira gainditu gastu kontzeptuetarako ezarri legezko mugak.

d) Hirugarrenen betebeharrak.

Miloi bat pezeta baino gehiago hauteskunde-gastu fakturatu duten bost enpresetako batek ez dio Kontuen Ganbarari jakinarazi, Lege Organikoko 133.5 artikulua ezarritakoa bete gabe. Hona enpresa:

Enpresa	Kopurua
Zunzarren	4.031.000

V.6. EA/EAJ-PNV KOALIZIOA.

a) Gastu eta dirusarreraren laburpena.

Emandako informazioaren arabera, hona hauteskunde-gastu eta dirusarreraren laburpena (pta.):

Dirusarrerak, guztira	18.623.062
Gastuak, guztira	17.520.268
Saldoa	1.102.794

Saldoaren banaketa:

Bankuko azken izakinak	3.542.453
Ordaindu gabeko gastuak	(14.959.927)
Kobratu gabeko dirusarrerak	12.529.268

b) Hauteskunde dirusarrerak.

Hona hauteskunde dirusarreraren banaketa (pezetatan):

Alderdiak emana	17.520.268
EA	5.256.080
EAJ-PNV	12.264.188
Nafarroako Gobernuaren aurrerakina	1.102.794

Partiduek ekarria bat dator kanpainako gastu guztiekin. 17,5 milioetatik, 12,5 eman gabe daude.

c) Hauteskunde gastuak.		Enpresa	Kopurua
Hona hauteskunde gastuen banaketa:		Dimensión	3.964.300
Gastu orokorrak	7.097.084	Gráficas Ulzama	3.168.192
Buzoiratzea	10.423.184	Mediasal 2000	3.499.335
		Panorama	1.110.432

Ez dira gairitu gastu kontzeptuetarako ezarri legezko mugak.

d) Hirugarrenen betebeharrak.

Badira milioi bat pezeta baino gehiago fakturatu duten lau enpresa, eta batek ere ez dio Kontuen Ganbarari jakinarazi. Hona enpresak:

Francisco Javier Sesma Masa auditore jaunak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak aurreikusitako izapideak bete ondoren

Iruñean, 1999ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. ERANSKINA: NAFARROAKO PARLAMENTUKO 1999KO HAUTESKUNDEETAN ESERLEKURIK ATERA DUTEN ALDERDI POLITIKOEN GASTU-DIRUSARREREN LABURPENA

Dirusarrerak, iturriaren arabera

Dirusarreren iturria	U.P.N.	P.S.O.E.	E.H.	I.U.	C.D.N.	E.A./E.A.J.-P.N.V.	Guztira
Banku-maileguak		21.100.000	20.100.000	12.000.000			53.200.000
Dirulaguntzaren aurrerakina	8.739.973	5.700.748	2.570.669	2.454.273	5.151.203	1.102.794	25.719.660
Alderdiak ekarria	37.121.843		500.000	986.802	22.889.186	17.520.268	79.018.099
Militante eta bazk				19.125			19.125
Bestelakoak	171			223	483		877
Guztira	45.861.987	26.800.748	23.170.669	15.460.423	28.040.872	18.623.062	157.957.761

Aurkeztutako gastuak eta dirulaguntzak

Alderdia	Buzoiratze gastuak	Gastu orokorrak	Gastuak, guztira	Dirulag., guztira
Unión del Pueblo Navarro (U.P.N.)	11.872.133	33.989.854	45.861.987	45.861.987
Partido Socialista de Navarra (P.S.N.-P.S.O.E.)	12.189.583	21.220.500	33.410.083	33.410.083
Euskal Herritarrok (E.H.)	7.055.665	15.988.912	23.044.577	23.005.114
Izquierda Unida (I.U.)	12.408.476	6.443.269	18.851.745	18.539.877
Nafarroako Demokraten Elkargunea (CDN)	12.727.753	24.431.874	37.159.627	18.533.595
E.A./E.A.J.-P.N.V. koalizioa	10.423.184	7.097.084	17.520.268	16.272.684
Guztira	66.676.794	109.171.493	175.848.287	155.623.340